



[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

## ***Lanpostua: Gizarte hezitzailea***

***Lehen ariketa***

### ***TEST GALDERAK***

- ***50 galdera dira.***
- ***4 erantzun aukeran.***
- ***Denbora, gehienez: 60 min.***

Eredua:

**D**

Ez ireki esan arte.

---

**1.- Uztailaren 31ko 27/2003 Legeak, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautu duenak, hauxe ezartzen du "babes-agindua" dela eta (aukera OKERRA adierazi):**

- a) Babes-agindua edozein agintariren eta administrazio publikoren aurrean gauzatu ahal izango da.
- b) Babes-agindua izaera zibileko neurriak jasotzen dituenean, neurri horiek 30 eguneko indarraldi luzaezina izango dute.
- c) Babes-agindua berarekin dakar biktimari une oro informazioa ematea egotziaren prozesu-egoerari buruz.
- d) Babes-agindua zuzenean eskatu ahal izango zaie Segurtasun Indar nahiz Kidegoei.

**2.- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 8koa, Genero Indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa. 19. artikulua. Gizarte laguntza osorako eskubidea. Diziplina anitzeko arretak bere baitan hartuko ditu bereziki (aukera OKERRA adierazi):**

- a) Familia-unitateari hezkuntza-babesa.
- b) Sentsibilizazio-planak.
- c) Arreta psikologikoa.
- d) Biktimganako informazioa.

**3.- Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 7. artikulua. Besteak beste, bi printzipio hauek arautuko dute Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema (aukera OKERRA adierazi):**

- a) Erantzukizun publikoa; berdintasuna eta ekitatea.
- b) Koordinazioa eta lankidetzak; herritarren parte-hartzea; esku-hartze interdisziplinarioak.
- c) Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa; unibertsaltasuna.
- d) Arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraitasuna; karitatea.

**4.- Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Udalaren eskumena da (aukera OKERRA adierazi):**

- a) Irizpide orokorrak ematea erabiltzaileek doako ez diren prestazio eta zerbitzuak finantzatzen parte har dezaten.
- b) Oinarriko gizarte zerbitzuak sortu, antolatu eta kudeatzea.
- c) Gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea sustatzea eta bultzatzea.
- d) Beren titulartasun peko zerbitzu, zentro eta erakundeak ikuskatu eta haien gaineko zigor-ahalmena erabiltzea.

**5.- Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 12. artikulua arabera, gizarte-zerbitzuetako profesionalen betebeharrak dira... (aukera OKERRA adierazi):**

- a) Esku-hartzeetarako ezartzen diren epeak betetzea, eta, betiere, indarrean den araudian ezarritako gehienezko epeetara egokitzea.
- b) Erabiltzaileek beren kabuz edo beren legezko ordezkariaren bitartez hartzen dituzten iritzia, irizpide eta erabakiak errespetatzea.
- c) Baldin eta eskura dituen balorazio-elementuetan oinarrituz, eta bere iritziz, egoera batek eskubideen urratzea ekar badezake, eskumena duen agintaritzari jakinaraztea.
- d) Erabiltzaileekiko harremanetan diskriminazio positiboa sustatzearen alde jokatzeko.

**6.- Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 15. artikulua arabera, hauek jotzen dira prestazio teknikotzat (aukera OKERRA adierazi):**

- a) Etxeko arreta.
- b) Lagun egite soziala.
- c) Baldin eta eskura dituen balorazio-elementuetan oinarrituz, eta bere iritziz, egoera batek eskubideen urratzea ekar badezake, eskumena duen agintaritzari jakinaraztea.
- d) Dirua ematea.

**7.- Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 21. artikulua araber, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzutzat jotzen dira (aukera OKERRA adierazi):**

- a) Gaueko harrera-zentroak.
- b) Harrera pisuak.
- c) Adinduentzako egoitza-zentroak.
- d) Etxean tratatu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak.

**8.- Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako. 7. artikulua araber, alor horretan tokiko administrazioaren eginkizuna izango da (aukera OKERRA adierazi):**

- a) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeek eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- b) Emakume eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea.
- c) Sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea.
- d) Zigorrezko ahala egikaritzea.

**9.- Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako. 43. artikulua, jazarpen sexistei buruzkoak, dioenez (aukera OKERRA adierazi)**

- a) Jazarpen sexista hau izango da: lanean, nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- b) Jazarpen sexista hau izango da: lanean, sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide izatea nahi ez duen pertsona batekin, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki.
- c) Jazarpen sexista diziplinako hutsegite oso larria izango da euskal herri-administrazioetako langileen kasuan.
- d) Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, laguntza juridiko eta psikologiko urgentea, doanekoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatu behar diete jazarpen sexistaren biktima direnei.

**10 - Gizarte hezitzailea. Kode deontologikoa. Printzipio deontologiko bikote hauetatik OKERRA adierazi:**

- a) Justizia soziala eta erakunde koherentzia.
- b) Gizarte eta heziketa ekintza eta etengabeko prestakuntza.
- c) Elkartasun profesionala eta heziketa ekintzaren subjektuekiko errespetua.
- d) Justizia soziala eta independentzia profesionala.

**11.- Gizarte Psikologia. Gatazkak konpontzea. Negoziazio estrategiei dagokienez, adieraz ezazu erantzun hauetatik zein den OKERRA:**

- a) Negoziazio integratiboan informazioa era estrategikoan erabiltzen da.
- b) Negoziazio integratiboan aldeentzat komunak diren helburuak edo interesak azpimarratzen dira.
- c) Negoziazio integratiboan beharizan pertsonalak islatzen dituzten irtenbideak bilatzen dira.
- d) Negoziazio integratiboan aldean arteko diferentziak azpimarratzen dira.

**12.- Gizarte Psikologia. Gatazkak konpontzea. Thomasek (1992) lortu nahi duten helburuaren arabera laburtzen ditu norgehiagokan oinarritutako negoziazio-taktikak, dela beste aldearen esparru arrazionala edo instrumentala aldatzea, dela araudi esparrua aldatzea, dela alderdi emozionalak aldatzea. Adieraz ezazu erantzun OKERRA:**

- a) Aurkariari lortu nahi duen emaitza ez dela hain positiboa sinestarazteak alderdi arrazionalekin lotutako asmo motibazionala du.
- b) Gure aurkariak lortu nahi dituen helburuen bidegabekeria azpimarratzek alderdi arautzaileekin lotutako asmo motibazionala du.
- c) Afektua gure mesederako erabiltzeko alderdi emozionalekin lotutako asmo motibazionala du.
- d) Besteari gure ustez negoziazioak haustea ez dela zaila eta beste aukera batzuk ditugula sinestarazteak alderdi arrazionalekin lotutako asmo motibazionala du.

**13.- Familia esku-hartzeari buruzko ikuspegiak. Helduaroko zailtasunak familia harreman goiztiar patologikoekin lotzen dituen ikuspegia zein ereduri dagokio?**

- a) Eredua psikoanalitikoari.
- b) Eredua kognitibo-konduktualari.
- c) Psikologia humanistikoaren ereduari.
- d) Belaunaldien arteko ereduari.

**14.- Familia esku-hartzeari buruzko ikuspegiak. Lan tresnatzat neutraltasuna, hipotesi formulazioa eta zirkularitatea erabiltzen dituen familia esku-hartzea zein ereduri dagokio?**

- a) Eredua psikoanalitikoari.
- b) Eredua sistemikoari.
- c) Eredua humanistikoari.
- d) Eredua estrategikoari.

**15.- Talde teknikak. Talde dinamikek dibertsio balio espezifikoak hartzen dute, eta horrek... (adieraz ezazu erantzun OKERRA)**

- a) Emotibitateak pizten du.
- b) Sormena pizten du.
- c) Erantzukina pizten du.
- d) Dinamikotasuna pizten du.

**16.- Gatazkak konpontzea. Adostasun eremuak azpimarratzeko eta gatazka eremuak apaltzeko estrategia gatazkak konpontzeko metodo bati dagokio. Adierazi zein den.**

- a) Konpromisoa.
- b) Saihestea.
- c) Inposaketa.
- d) Leuntzea.

**17.- Gaitasun emozionalak. Adieraz ezazu zein den bikote OKERRA:**

- a) Trebetasun sozialak - Gaitasun soziala.
- b) Autoerregulazioa - Gaitasun pertsonala.
- c) Empatia - Gaitasun pertsonala.
- d) Motibazioa - Gaitasun pertsonala.

**18.- Trebetasun sozialak. Gaitasun hauetako bat ez dagokio zehatz-mehatz trebetasun sozial bati. Adierazi zein:**

- a) Moldagarritasuna.
- b) Lidergoa.
- c) Gatazkak konpontzea.
- d) Eragina.

**19.- Bisquerrak (2003) bost faktoreren eta horiei dagozkien dimentsioen arabera agituratzen ditu gaitasun emozionalak. Adieraz ezazu zein den bikote OKERRA:**

- a) Emozioen ulermena - Kontzientzia emozionala.
- b) Emozioen adierazpena - Emozioen erregulazioa.
- c) Gizarte arauen analisi kritikoak - Autonomia pertsonala.
- d) Emozioak partekatzea - Gatazkak konpontzea.

**20.- Gasteizko biztanleria. Biztanleriari buruzko datuak, 2013ko urtarrilaren 1ean. (Adieraz ezazu baieztapen OKERRA)**

- a) Gizonen batez besteko adina emakumeena baino handiagoa da.
- b) 65 urtetik gorako emakumeen indizea emakumeen populazio osoaren % 20 baino handiagoa da.
- c) 65 urtetik gorako pertsonen kopurua 17 urtetik beherako gazteen kopurua baino handiagoa da.
- d) 17 urtetik beherako gizonen eta emakumeen arteko aldea % 1 baino txikiagoa da.

**21.- Nazionalitatearen aldagaiari dagokionez, Gizarte Gaien Sailak arreta ematen dien populazioa... (Adieraz ezazu baieztapen OKERRA):**

- a) Arreta emandako nazionalen ehunekoa atzerritarrena baino handiagoa da.
- b) Arreta emandako atzerritarren ehunekoa hirian dauden atzerritarren ehunekoaren antzekoa da.
- c) Arreta emandako atzerritarren ehuneko handiena afrikar jatorriko pertsoneri dagokie.
- d) Arreta emandako atzerritarren artean, 65 urtetik gorako pertsonen kopurua 17 urtetik beherako gazteen kopurua baino handiagoa da.

**22.- Zein da Udalaren gizarte zerbitzuek gehien babesten duten kolektiboa?**

- a) 0 eta 17 urte bitarteko adingabeak.
- b) 18 eta 35 urte bitartekoak.
- c) 36 eta 79 urte bitartekoak.
- d) 80 urtetik gorakoak.

**23.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek arreta emandako familia-moten artean hauek dira nagusi:**

- a) Pertsona bakarreko familiak.
- b) Guraso bakarreko familiak.
- c) Seme-alabarik gabeko familia nuklearrak.
- d) Seme-alabak dituzten familia nuklearrak.

**24.- Helburu hauetatik, zein da udaleko gizarte zerbitzuak kudeatzen dituen sailaren helburu nagusietako bat?**

- a) Bizi-kalitatea sustatzea.
- b) Gizarteratzea sustatzea, erantzukizun publikoko neurriak garatuz.
- c) Herritarrak sustatzea.
- d) Bizitza autonomia indartzea.

**25.- Udaleko gizarte zerbitzu hauetatik zein dira izaera orokorrekoak?**

- a) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Larrialdietarako Udal Zerbitzuak.
- b) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
- c) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Berariazko Zerbitzuak.
- d) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Adinekoen Zerbitzua.

**26.- Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuko atalak. (adierazi OKERRA dena)**

- a) Familia Babesteko Atala.
- b) Prebentzio eta Balorazio Atala.
- c) Haurtzaro eta Senitarte Atal Teknikoa eta Familia Babesteko Atala.
- d) Haurtzaro eta Senitarte Atala.

**27.- Zein izen du gaur egun udaleko gizarte zerbitzuak kudeatzen dituen sailak?**

- a) Gizartegintza.
- b) Gizarte Politika.
- c) Gizarte Gaiak.
- d) Gizarte Politikak.

**28.- Komunitate Jardueraren Zerbitzuan esku-hartzeko egituraren barruan dauden komunikazio programak. Aukera OKERRA adierazi:**

- a) Informazio eta sentsibilizazio soziala.
- b) Gizarte gaitasuna eta hazkuntza pertsonala.
- c) Parte-hartzea eta elkarri laguntzea.
- d) Komunitate parte-hartzea eta elkartasunezko laguntza.

**29.- Udaleko gizarte zerbitzuen barruan berariaz gizarteratzeko den zerbitzuak, bestek beste, helburu hau du:**

- a) Sustapen eta integrazio ekonomikoa.
- b) Ahuldade egoeretara eta gizarte bazterketaren arriskura daramaten arrazoiei aurre egitea.
- c) Gizarte eta osasun sustapena.
- d) Osasuna eta hezkuntza indartzea.

**30.- Haurren ongizatea hobetzeko programak. Aukera OKERRA adierazi:**

- a) Familiei laguntzeko programak.
- b) Loturak hausteko programak gazteentzat.
- c) Haurrek eta nerabeek parte hartzeko programak.
- d) Familiatik emantzipatzeko programak.

**31.- Udaleko Adinekoen Zerbitzuaren berariazko helburuak. Aukera OKERRA adierazi:**

- a) Adingabeak familia ingurunean zaintzen dituzten familientzako laguntza sustatzea.
- b) Adinekoen kolektiboen parte-hartzea sustatzea, Adinekoen Parte Hartzerako Sektore Kontseiluaren bitartez.
- c) Pertsona nagusien artean formazio, aisialdi eta boluntariotzako jardueretan parte hartzeko joera sustatzea.
- d) Adinekoei ordezko bizilekuak eskaintzea, beren ohiko bizilekuan bizitzen jarraitzerik ez dutenerako.

**32.- Udaleko gizarte zerbitzuak kudeatzen dituen sailaren barruko zerbitzuak. Aukera OKERRA adierazi:**

- a) Administrazio Zerbitzua.
- b) Zuzendaritza Zerbitzua.
- c) Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua.
- d) Gizarte Bazterketarako Zerbitzua.

**33.- Zein dira sailaren 1. mailako zerbitzuak, edo zerbitzu orokorrak?**

- a) Adinekoen Zerbitzua eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
- b) Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
- c) Administrazio Zerbitzua eta Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua.
- d) Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua eta Adinekoen Zerbitzua.

**34. - Zer da Neguan Ostatu emateko Baliabidea?**

- a) Neguko arreta berezia.
- b) Horren bidez, etxebizitzarik izan ez eta kalean lo egiten duten pertsonen urteko egun hotz eta gogorrenetan Udalak ostatua emateko dituen zentroetan sartzeko aukera ematen zaie.
- c) Neguan laguntzak ez etetea.
- d) Abenduan eta urtarrilean ostatu ematea.

**35.- Zer da "ONARTUZ"?**

- a) Genero indarkeriaren biktimei harrera egiteko prozesua.
- b) Genero indarkeriaren biktimei lagun egiteko prozesua.
- c) Udalaren gizarte zerbitzuen prozesua harrera egin eta laguntzeko.
- d) Genero indarkeriaren biktimei harrera egin eta laguntzeko prozesua.

**36.- Zer dira adinekoentzako zentro soziokulturalak?**

- a) Adinekoentzako aisialdi eta kultura zentroak.
- b) Adinekoen zentroak.
- c) Adineko jendea elkartzeko lekuak, bizikidetzak, harremanak eta parte-hartzea bultzatzea helburutzat dutenak.
- d) Aisialdi eta denbora librerako topaguneak.

**37.- Zentro hauetatik zein daude zuzenduta etxebizitzarik ez duten pertsoneri edo gizarte ahuldade egoeran dauden pertsoneri?**

- a) Harrera Sozialerako Udal Zentroa, Etxe Irekia udal zentroa eta Aterpe gaueko zentroa.
- b) Estrada eguneko zentroa, zainpeko etxebizitzak eta zainpeko apartamentuak.
- c) Harrera Sozialerako Udal Zentroa, zainpeko apartamentuak eta harrera etxebizitzak.
- d) Berehalakoan Hartzeko Zentroa, Aterpe gaueko zentroa eta zainpeko etxebizitzak.

**38.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen helburuak. Aukera OKERRA adierazi:**

- a) Dagokion eremuko behar sozialak atzematea, eta esku-hartzeko proposamenen edo ebazpenen bitartez bideratzea behar horiek.
- b) Udalak zein beste erakunde eta sektore batzuek eskaintzen dituzten gizarte zerbitzuei buruzko informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientabideak ematea.
- c) Esku-hartzeko programak aplikatzea, hala sailarenak nola beste sail eta erakunde batzuenak.
- d) Zerbitzuaren beraren, Sailaren edo beste udal sail batzuen programak aplikatzea.

**39.- Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua lehen mailako arretako zerbitzua da, eta arreta emateko ordutegi hau du:**

- a) Eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.
- b) Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 22:00etara.
- c) Egunero, 08:00etatik 22:00etara.
- d) Egunero, arratsaldez bakarrik, goizez Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak baitaude.

**40.- Etxez Etxeko Laguntza Programaren barruko aukerak.**

- a) Bazkaria etxera eramateko zerbitzua eta hezkuntza alorrean esku-hartzeko zerbitzua.
- b) Bazkaria etxera eramateko zerbitzua eta gizarte zein hezkuntza alorrean esku-hartzeko zerbitzua.
- c) Gizarte zein hezkuntza alorrean esku-hartzeko zerbitzua, etxean laguntzeko zerbitzua eta bazkaria etxera eramateko zerbitzua.
- d) Bazkaria etxera eramateko zerbitzua eta etxean laguntzeko zerbitzua.

**41.- Zer da PLINA?**

- a) Nerabeentzako Ekimenen Tokiko Plana.
- b) Haur eta Nerabeentzako Udal Plana.
- c) Herriko Plana Haurrentzat.
- d) Nerabeekin Esku-hartzeko Tokiko Plana.

**42.- Nori EZ zaio zuzentzen PLINA?**

- a) Gasteizko udalerrian bizi diren haur eta nerabeei.
- b) Elkarteei oro har.
- c) Gurasoei eta oro har haur eta nerabeak zaindu eta hezteko ardura dutenei.
- d) Haur eta nerabeei arreta egiten lanean diharduten erakunde eta profesionali.

**43.- "Hurbil" taldearen kaleko heziketarako programaren esku-hartzea nori zuzentzen zaio?**

- a) Kanean dauden pertsoneri oro har.
- b) Gizarte-bazterkeriako egoera larrian daudelarik erakundeek laguntza oro ukatzen duten pertsoneri.
- c) Kanean dauden eta oinezkoen enbarazu egiten dieten pertsoneri.
- d) Kanean dauden pertsona erasokorrei.

**44.- "Gizarteratu" programaren barruko eskaintzak. Aukera OKERRA adierazi:**

- a) Herritar ororentzako lantegiak.
- b) Gizarteratze ibilbide bat.
- c) Eskulangintza lantegia.
- d) Teknologia berrien hastapenei buruzko lantegia.

**45.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Institutuaren arloak:**

- a) Hautzaroa eta Familia, Mendekotasuna, Ezindiak eta Adimen Gaixotasuna, eta Gizarteratzea.
- b) Adinekoak eta Mendekotasuna, Ezindiak eta Adimen Gaixotasuna, Adingabeak eta Familia, eta Oinarrizko Gizarte Ekintza eta Gizarteratzea.
- c) Adinekoak, Ezindiak, Hautzaro eta Familia, eta Gizarte Ekintza.
- d) Adingabeak eta Familia, Adinekoak eta Mendekotasuna, Ezindiak, eta Gizarteratzea.

**46.- Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutuko Gizarteratze Arloko zerbitzuak:**

- a) Informazio, balorazio eta diagnostiko zerbitzua; gizarte ahuldade egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuak.
- b) Etxeko laguntza; genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zerbitzuak, eta informazio zerbitzua.
- c) Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzua; etxeko laguntza; etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzako eta arrisku egoeran dauden emakumeentzako zerbitzuak, eta baztertuta dauden pertsonentzako zerbitzuak.
- d) Balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzua; etxeko laguntza, eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zerbitzua.

**47.- Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutuko Adinekoen eta Mendekotasunaren Arloko zerbitzuak:**

- a) adinekoentzako zentro soziokulturalak, zainpeko apartamentuak, egoitzak eta etxebizitza komunitarioak.
- b) Zainpeko apartamentuak, eguneko zentroak eta egoitzak.
- c) Egoitzak, eguneko arretarako landa zentroak, adinekoentzako zentro soziokulturalak eta etxebizitza komunitarioak.
- d) Eguneko arretarako landa zentroak, eguneko zentroak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak.

**48.- Zer da Emakunde?**

- a) Eusko Jaurlaritzaren erakundea, berdintasun politiketarako.
- b) Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa, berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituena.
- c) Emakumearen Euskal Erakundea, matxismoaren kontrako programak abiarazteko.
- d) Eusko Legebiltzarraren menpe dagoen erakundea.

**49.- Eusko Jaurlaritzaren Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Zerbitzu Espezializatuak EZ du kudeatzen**

- a) Genero indarkeriaren biktimei informazioa emateko eta laguntzeko 016 telefono bidezko zerbitzu espezializatua 24 ordutan.
- b) Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko diru-laguntza.
- c) Errekurtso eta zerbitzuen kudeaketa integratua.
- d) Genero indarkeriaren biktimei informazioa emateko eta laguntzeko 900 840 111 telefono bidezko zerbitzu espezializatua 24 ordutan.

**50.- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat Eusko Jaurlaritzak ematen duen ordainketa bakarreko diru-laguntza jasotzeko, zein administrazio betekizun eskatzen da autonomia erkidegoan erroldatuta egoteari dagokionez?**

- a) Erroldan gutxienez urtebeteko antzintasuna izatea.
- b) Erroldan gutxienez 3 urteko antzintasuna izatea.
- c) Erroldan gutxienez 6 hilabeteko antzintasuna izatea.
- d) Ez da erroldan inolako antzintasunik eskatzen.